


## • "THE FUTURIST GUANÁBANAS"-EN PROPOSAMENA •

### IDEIA NAGUSIA:

Muxukoak dituen materialak banatzen dituen makina bat egitea bururatu zaigu. Makinak, alanbreak, gomak eta muxukoaren zati urdinak zatituko ditu. Alde batetik, bererrabil daitezken materialak hartuko ditu, hala nola, alanbreak. Hauek maskarila berriak egiteko erabi ahalko dira. Bestetik, ekologikoak direnak hartuko ditu, hauek berriz, deskonposatu eta konpostean bihurtzeko aukera emango dute. Gainera, makina portatila izango denez, behekaldean banatuta almagazentatuko ditu material hauek bezeroak birziklatzeko zaborrontziak aurkitu arte.



Goian, gure bozetoa ikus daiteke, hau egitea bururatu zaigu, batik bat, makinaren itxura eta funtzionamendua ikusteko. Lehenengo irudian, itxita dagoenean ikusiko litzatekeen bezala margotu dugu, bigarrean, berriz, irekita dagoenean.

Bigarren irudian, tapan dauden kuter batzuk ikus daitezke. Hauen funtzioa oso sinplea da. Muxukoa barrualdean dagoen markan kokatuz eta tapa ixterakoan, botoia sakatzen baldin badugu kuterrek maskarillaren kontra presioa egingo dute eta kuter finek gomak moztuko dituzte. Laukizuzen formakoa den kuterra berriz, alanbrearen zatian zulo bat egingo dute alanbrea errazago atera dadin.

Hori guztia egiterakoan, behealdean dagoen kaxan almazenatutako dira zati guztiak eta zati bakoitzari zaborrontzi bat emango zaio, adibidez, maskarillan dauden plastikoentzat horia eta biodegradableak diren materialentzat etxeko konpost kuboak.